Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

603

AGINDUA, 2009ko abenduaren 9koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Giza Eskubideen «Rene Cassin» sariaren epaimahaia eta ebazpena jakinarazten dituena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2009ko irailaren 16ko Aginduz (2009ko irailaren 30eko EHAA, 188. zenbakia), Giza Eskubideen «Rene Cassin» saria deitu eta arautu zen.

Deialdi honen xedea jendaurrean beren ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza eman duten pertsonak, entitateak edo gizataldeak jendaurrean aitortzea eta saritzea da.

Sariaren izena Rene Cassin gogoan dugula pentsatu da. Rene Cassin Baionan jaio zen, 1887ko urriaren 5ean. I. Mundu Gerrako zorigaiztoko esperientziak eragin nabarmena izan zuen berarengan eta borrokan ibilitakoen eta gerrako biktimen defendatzaile porrokatua izan zen. Horiek horrela, 1948an, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren inspiratzaile nagusia izan zen eta, 1950ean, funtsezko papera jokatu zuen Giza Eskubideen Europako Ituna prestatzeko lanetan. Bakearen Nobel Saria eman zioten 1968an, giza eskubideen alde egindako lan ikaragarriagatik. Saria, Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Erakundea eratzeko erabili zuen.

Beraz, 2009ko irailaren 16ko Agindu horren 6.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, saria zein pertsonak merezi duen erabakitzeko, kalifikaziorako epaimahaia eratuko da, eta bertan, giza eskubideekin zerikusia duten ospe handiko pertsona ezagunek hartuko dute parte; halaber, epaimahaia aginduz izendatuko da eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburua izango du epaimahaiburu. Sariaren ebazpenarekin batera jakinaraziko da Epaimahaiaren osaera.

Horrez gain, eta agindu horretako 8. artikuluan ezarritakoa betez, epaimahaiak saria emateko proposamen arrazoitua aurkeztuko du, bere jakindurian eta adimenean oinarrituta. Horretarako, kontuan hartuko dira deialdiko esleipen-irizpideak nahiz saritutako pertsonek edo taldeek duten garrantzia eta ibilbidea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

603

ORDEN de 9 de diciembre de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se hace pública la composición del Jurado y el Fallo del Premio «Rene Cassin», de Derechos Humanos.

Mediante Orden de 16 de septiembre de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco número 188, de 30 de septiembre, se convoca y regula el Premio «Rene Cassin» de Derechos Humanos.

La finalidad de la convocatoria es el reconocimiento público de aquellas personas, entidades o colectivos, que, con su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los Derechos Humanos.

La denominación del Premio se realiza en Memoria del Sr. D. Rene Cassin, nacido en Bayona el 5 de octubre de 1887. La trágica experiencia de la I Guerra Mundial le marcó profundamente, convirtiéndose en un resuelto defensor de los antiguos combatientes y de las víctimas de la guerra. Como tal, fue el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en 1948 y jugó un papel esencial en la elaboración del Convenio Europeo de Derechos Humanos de 1950. Galardonado con el Premio Nobel de la Paz en 1968 por su combate infatigable en favor de los Derechos Humanos, consagró el Premio a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

Por consiguiente, conforme a lo establecido en el artículo 6.1 de la citada Orden de 16 de septiembre de 2009, para la elección de la persona o personas merecedoras del Premio se constituirá un Jurado, compuesto por destacadas personalidades de reconocido prestigio vinculadas con los Derechos Humanos o con los valores y principios que los inspiran, designado mediante Orden y Presidido por la Excma. Consejera de Justicia y Administración Pública. La composición del Jurado se hará pública junto con el Fallo del Premio.

Además, y de conformidad con lo establecido en el artículo 8 de la citada Orden, el Jurado formulará propuesta de concesión en la que expresará las razones que justifican, según su leal saber y entender, el acuerdo adoptado en relación con los criterios de adjudicación contenidos en esta convocatoria, así como la valoración que le merece el significado y trayectoria de la persona o colectivo premiado.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Epaimahaikideak.

Honako hauek izango dira Giza Eskubideen «Rene Cassin» Sariaren epaimahaikideak:

– Idoia Mendia Cueva andrea, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua den aldetik epaimahaiburu legetxe jardungo duena.

– Inés Ibañez de Maeztu Izaguirre andrea, epaimahaiaren idazkari gisa, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Baliabideen zuzendaria den aldetik.

– José Manuel Finez Ratón jauna.

– Natividad Rodríguez Lajo andrea.

– Joseba Arregui Aramburu jauna.

– Victoria Cinto Lapuente andrea.

– Juan Luis Ibarra Robles jauna.

– Concepción Escobar Hernandez andrea.

2. artikulua.– Ebazpena.

2009ko azaroaren 30ean, Giza Eskubideen «Rene Cassin» Sariaren epaimahaiak bilera egin du, eta beharrezko eztabaida egin ondoren, erabaki du Giza Eskubideen «Rene Cassin» 2009ko Saria Marcos Anari (Fernando Macarro Castillo) ematea, izan ere, espainiarren gogaidetasun eta adiskidantzaren ikur bizia baita. Ziega frankistetatik ateratzerakoan berak izan zuen jarrera, bakearen eta elkarrizketaren alde eginaz, eta mendeku nahiak saihestuz, gizatasunaren erakusgarri dira, justiziaren eta elkarbizitzaren egitasmorako bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 9a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Composición del Jurado.

El Jurado del Premio «Rene Cassin» de Derechos Humanos está compuesto por los siguientes miembros:

– Excma. Sra. Dña. Idoia Mendia Cueva, que actúa en calidad de Presidenta del Jurado en cuanto Consejera del Departamento de Justicia y Administración Pública.

– Ilma. Sra. Dña. Inés Ibañez de Maeztu Izaguirre, que actúa en calidad de Secretaria del Jurado en cuanto Directora de Derechos Humanos del Departamento de Justicia y Administración Pública.

– Ilmo. Sr. D. José Manuel Finez Ratón.

– Sra. Dña. Natividad Rodríguez Lajo.

– Sr. D. Joseba Arregui Aramburu.

– Ilma. Sra. Dña. Victoria Cinto Lapuente.

– Ilmo. Sr. D. Juan Luis Ibarra Robles.

– Sra. Dña. Concepción Escobar Hernandez.

Artículo 2.– Fallo.

El Jurado del premio «Rene Cassin» de Derechos Humanos, reunido el día 30 de noviembre de 2009 tras la correspondiente deliberación, falla conceder dicho Premio, en su edición de 2009, a favor de Marcos Ana (D. Fernando Macarro Castillo), porque ha sido y es símbolo vivo de la concordia y la reconciliación española. Su actitud al salir de la cárcel franquista, abogando por la paz y el diálogo y rechazando cualquier deseo de venganza, encarnan el valor de humanidad, referente como proyecto de justicia y convivencia.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.